

STM

donostiakultura.com




San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

ALAKIKETAN

Ikaslearen gida

San Telmo Museoa



Erakunde laguntzaileak:



Patrono pribatuak:



Jantzi nazazu!

Jantzi nazazu eta zure dantzaria asma ezazu!

Hemen dituzu Otsagabiako dantzaria janzteko elementuak. Ezkerreko pertsonaiaren silueta eta elementu bakoitza moztu itzazu eta siluetaren gainean osagaiak jarritz, txontxongiloa osa ezazu.



Baserritar giroa

BASERRIA: ETXE BAT ETA ASKOZ GEHIAGO

Hona hemen baserri baten maketa, hiru solairutan banatuta. Berriro behar bezala muntatzeko gauza zarete? Ikus dezakezuenetz, solairu bakoitzak bere betekizuna dauka.

Zer dago baserriko solairu bakoitzean? Osatu honako galderak.

- Beheko solairua: U _ _ _ _ _ A
- Goiko solairua: E _ _ _ _ _ _ _ _ _ A
- Teilatupeko solairua: G _ _ _ _ _ A


Teilatua jartzekotan, pentsatu gauza bat: zeren gainean egongo da tximinia?

FAMILIA

Bila ezazu argazkien artean baserri bat familia osoarekin: zenbat lagun dira guztira?

- 4
- 8
- 16

Baserrietan oso normala zen hiru belaunaldi batera bizi zena. Zurekin bizi al da aitona-amonarik, osaba-izebarik?



ETXEKOAK DIRA, BAINA EZ SENIDE

Baserrian abereak ezinbestekoak ziren. Bila itzazue argazkietan zerrenda honetako lau abere mota.

Zaldia	Ahatea
Txakurra	Ahuntza
Ardia	Zezena
Akerra	Zerria
Katua	Untxia
Olioia	Txita
Oilarra	Arratoia
Behia	Astoa
Idia	Sagua

Lanerako, behiak gehiago erabiltzen ziren idiak baino: indar gutxiago duten arren, haiei esker kumeak eta esnea ere lortzen ziren.


DENA EZ ZEN LANA

Musika:

Musikariak zenbait argazkitan ateratzen dira.

Batean, lau gizonak alboka jotzen dute.

Zer jotzen du andreak?



Kirola:

Euskal kirolak lanetatik datoz: belarra segatzea, harriak altxatzea harrobietan edo eraikuntzan, enborrak moztu eta sokaz arrastaka ateratzea...

Alabaina, euskal kirolik ezagunena joko hutsa da, ez du zerikusirik lanarekin.

Badakizu zein kirol den hori?

Argazki batean aurkituko duzu.

.....

Pista: honako honetan, zestak erabiltzen dituzte jokatzeko.

Zestak ikusi al dituzu?

Zer falta zaie jolasteko?

.....

.....

Zergatik uste duzu objektuak bitrinetan daudela? Arrazoitu erantzuna.

.....

.....

Gauza batzuk, hautsi edo hondatuz gero, konpondu edo berriak erabil daitezkeelako. Beste gauza batzuk, ordea, behin betiko galduko lirateke, museoetan beste inon ez baitaude. Horrexegatik egon ohi dira bitrinetan, hobeto kontserbatzeko.

Museo baten lanik handiena horixe da: gauzak kontserbatzea, zuen seme-alabek ere etorkizunean goza ditzaten, zu zeu oraintxe egiten ari zaren bezala.

